

Donostia, 2016ko otsailaren 19a

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

BERDINTASUN ORDENANTZARI BURUZKO MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garin naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, azterkizun aurkezten diot Udalbatzari ondoko **KONTROL MOZIO** hau, otsailaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean berdintasun ordenantza idatzi eta onartzeari buruz aurkezturiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Neurri eta tresna batzuk arautu zituen Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18an onarturiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, gizartean emakumeen eta gizonen artean diren ezberdintasun handiak gainditzen saiatzeko.

Hainbat arau onartu dituzte euskal erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko. Donostiako Udala ez da salbuespena, eta, orain, 2014-2018 Berdintasun Plana du indarrean. Halaber, bai Euskadin bai Gipuzkoan, udalerrri batzuek, urrunago joanda, berdintasun ordenantzak onartu dituzte, ordenantza izateak ezinbestean betebeharreko arau bihurtzen baititu, hirigintza, ingurumen edo kultur ordenantzek duten maila eta egonkortasun maila beretan.

Indarreko III. Berdintasun Plana partaidetzan prestatu zuten, Berdintasun Bulegoaren gidaritzapean, esku hartu zutelarik nahiz udaleko langileek nahiz Donostiako mugimendu feministako eta emakumeen elkarteetako kideek, Berdintasunaren Aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluak eta banako emakume batzuek. Gure ustez, partaidetza zabaleko eredu horren arabera egin beharko genuke proposatzen dugun ordenantza.



Horregatik guztiagatik, ondoko kontrol mozioa aurkezten dugu

MOZIOA

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari aurkeztu diezaiola Udalbatzar honi berdintasun ordenantza bat, udalaren berdintasun politikei arau maila handiagoa eransteko. Partaidetzan prestatuko dute berdintasun ordenantza, erreferentzia hartuta III. Berdintasun Plana idaztean erabilitakoa.

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.